

Larunbatean hasiko da 'Sagastiak Loretan'

kastaroak, ibilaldiak, egitasmo aurkezpenak edota usurbildarrentzat maitatuena den urteko jai eguna, XXXIV. Sagardo Eguneko ospakizunak dakartza, Usurbilgo III. Sagastiak Loretan, sagarrondoren loraldiaren gorazarre ekimenak. Ekitaldi eskaintza zabala, larunbat honetan hasi eta ekainaren 13ra bitarte:

Apirilak 25, larunbata

10:15 Sagastien paisaian barrena ibilaldia Jakoba Errekondo paisajis-tarekin, Alkartasuna, Usurbilgo Baserriarren Kooperatibatik abiatuta.

Maiatzak 9, larunbata

09:00-13:00 "Egutegi Biodinamikoak eta Ilargiak nekazaritzan duen eragina" ikastaro teorikoa Potxoenean. Noiz erein, landatu, ongarritu eta kimatu? Uzta hobetzeko kosmosaren eragina baliatu. Xabier Akizuren eskutik. Prezioa: 5 euro, Alkartasunako bazkideek doanik.

Maiatzak 14, osteguna

11:30 Usurbilgo sagardoaren ibilbide turistikoaren aurkezpen prentsaurrekoa Potxoenean.



Jakoba Errekondok gidatuko du larunbat honetako ibilaldia. Abiapuntua, Alkartasuna kooperatiba. Ordua: 10:15.

Maiatzak 15, ostirala

San Ixido Eguna:

10:30 Meza Salbatore Elizan.

Ondoren, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.

14:00 Bertso bazkaria Artzabalen. Txartelak salgai maiatzaren 12ra arte, 25 eurotan, Artzabalen eta Alkartasuna Kooperatiban.

18:30 Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.

Maiatzak 17, igandea

XXXIV. Sagardo Eguna.

Maiatzak 23, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: gaitzen eta izurri-

teen jarraipena. Aitor Etxeandiaren eskutik.

19:00 Bertsoakata egitasmoaren aurkezpena. Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea, Guillermo Casañas enologoaren laguntzarekin. Lekua, zahazteke.

Maiatzak 30, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Ongarriketeta. Aitor Etxeandiaren eskutik.

Ekainak 13, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Udako kimaketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.